

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 12an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko udalerrian 2019an enpresak sortzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berriazko deialdia

BDNS (Identif.): 453498

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsultatu daitezke.

Lehena. Onuradunak

Ekonomi Jardueren gaineko Zergan 2015eko uztailaren 1az geroztik alta emanda dauden enpresa txiki pribatuak, edozein delarik bere forma juridikoa, Gasteizko negozio-lokaletan gutxienez 5.000,00 euroko inbertsio-proiektuak egin badituzte diruz lagun daitezkeen kontzeptuetan, eta jarduera nagusia ekonomi jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetakoren batean ez badago.

64-67 Txikizkako merkataritza eta elikadura zerbitzuak.

691.1 Etxerako artikulu elektrikoek konponketa.

691.9 Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa, BISG (beste inon sartu gabeak).

755.2 Bidaia-agentziak.

971.3 Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972 Ile-apaindegi eta edertasun zerbitzuak.

Bigarrena. Xedea

Gasteizko udalerrian enpresa txikiak sortzeko laguntzak arautuko dituzten baldintzak arautzea, hainbat arlotan 2018ko uztailaren 1etik 2019ko ekainaren 28ra bitartean egindako inbertsioak diruz lagunduta. Arlo hauetako inbertsioak lagunduko dira: eratze gastuak, abian jartzeko gastuak eta aktibo finko berriko elementuetan egindako inbertsioak.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19 zenbakia), eta 2019ko apirilaren 12an, berriz, laguntza horien 25 ildoan, Gasteizko udalerrian enpresak sortzeko laguntzak laguntza ekonomikoen deialdia. 2019. urtea.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 90.000,00 euroko zuzkidura du, 2019ra luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.67 Inbertsiorako laguntza partidaren kontura. Enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarria tramitatuko da, eta gehieneko zenbatekoa 8.000,00 eurokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2019ko ekainaren 3tik 28ra.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 17an

*Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko
Iraunkorraren Saileko zerbitzu burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*